

Akrilamidaren, nitratoen eta OTaren ingesta Holandan 14/10/17

Osasun Publikorako eta Ingurumenerako Holandako Institutu Nazionalak (RIVM) 3 konposatu kimikoren ingesta aztertu du (akrilamida, nitratoak eta okratoxina A). Horiek Holandako 7 eta 69 urte bitarteko herritarrek kontsumitzen dituzten elikagaietan daude, eta honako hauek dira ikerketaren ondorioak:

Nitratoak: (http://wikia.elika.eus/index.php/Nitratoak,_nitratoak_eta_nitrosaminak)

Erreferentzia gisa EIO (Eguneko Ingesta Onargarria) baino nitrato-ingesta handiagoa duten herritarren ehuneko hartu dute, eta ondorioztatu dute hutsala dela esposizioagatik Holandako herritarren osasunak izan dezakeen arriskua. Hortaz, **nitratoen ingesta segurua da (barazkietan dago, batik bat)**.

Hala ere, ortuari batzuen nitrato-kontzentrazioari buruzko datuak ez zeuden eguneratuta, eta lagin-kopurua oso txikia izan da. Hori dela eta, gomendagarria da nitratoaren kontzentrazioari buruzko datuak eguneratzea eta lagin-kopurua nahikoa izatea, ziurtatzeko aztertutako kontzentrazioek benetan ordezkatzeko dituztela esposizioa duten pertsonen benetako kontzentrazioak.

Akrilamida (<http://wikia.elika.eus/index.php/Akrilamida>)

Baliteke akrilamidarekiko esposizioari dagokiona baino balio handiagoa eman izana, 2005ean eta 2006an aztertutako elikagai-laginetako akrilamida-kontzentrazioak erabili baitira. Gainera, ordutik neurriak hartu dira etengabe, elikagaietako akrilamida murrizteko. Horrenbestez, Institutuak ezarri du kontzentrazioari buruzko datu eguneratuak behar direla esposizioaren ebaluazioa hobetzeko.

Nolanahi ere, emaitzek argi erakusten dute akrilamidak Arriskuaren Kudeaketarako lehentasuna izaten jarraitzen duela, MOE (esposizio-tartea) txikia du eta. Halaber, gomendatzen da akrilamidak eragin dezakeen neurotoxizitateari buruzko ikerketa gehiago egitea.

RIVMrek ondorioztatu du aztertutako akrilamida-kopuruak (labean egindako elikagaietan eta elikagai frijituetan dago) eragin kaltegarria izan dezakeela esposizioa duten herritarren osasunean.

Okratoxina A (OTA) (http://wikia.elika.eus/index.php/A_okratoxina)

Okratoxina A (OTA) ondoek sortutako mikotoxina bat da, baina **ezin izan zuten zehaztu osasunerako arriskutsua ote den**, nahiz eta AIO (Asteko Ingesta Onargarria) adin-talde guztietan gainditu den. Era berean, ikerketa gehiago behar dira OTAk gizakiengan izan dezakeen eragin toxikologikoari buruz.

Hori dela eta, **RIVMk gomendatzen du erosketa-saskiko elikagaietako OTA kontzentrazioari buruzko datuak aztertzea**. Horrez gain, aintzat hartu behar dira OTAkren ekoizpen-faktoreak kontsumitutako elikagaietan, mikotoxina horren arriskua ebaluatu ahal izateko.

RIVMren txostena akrilamidaren, nitratoaren eta OTaren ingestari buruz (http://www.rivm.nl/dsresource?objectid=rivmp:261750&type=org&disposition=inline&ns_nc=1)
ELIKA. Granja Modelo, z/g. 01192. Arkaute (Araba). Telefonoa: 945 122 170. Faxa: 945 122 171. berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)